

Eskolan zenbat eta lehenago ingelesez, orduan eta kaskarrago gaelikoz

GAELIKOA gehien hitz egiten den Irlandako eskualdeetan ere larri dabilta. Etxean gaelikoz aritzen diren haurrak eskola elebidunetan nola moldatzen diren aztertu dute, eta datuek diote ingelesa hobeto menperatzen dutela, euren hizkuntza baino.

The Irish Times egunkariak *Analysis of Bilingual Competence: Language Acquisition among Young People in the Gaeltacht* liburuaren berri eman du. Ikerketan, gaelikoak indar handiena duen gunetako (*Gaeltacht* deitzen zaie) 50 familiatako haurrei jarraipena egin diete, gaitasun linguistikoak neurtzeko. 7 eta 12 urte bitartekoak dira, etxean gaelikoz egiten dute eta ikastetxean gaelikoz eta ingelesez.

Ikerketaren ondorio nagusia ondokoa da: eskolan bi hizkuntzekin goiz hasita, etxeko hizkuntza gutxiagotua dutenak irabazten baino galtzen ateratzen dira. Alegia, gaeliko hiztunak diren haurrek beraien hizkuntzan gaitasuna galtzen dute eta ingelesez hobeto moldatzen dira.



IRELANDJOURNAL.TYPEPAD.COM

AEBetan gaztelaniarekin antzekoa gertatzen da

Antzeko zerbait gertatzen da gaztelaniaz egiten duten Amerikako Estatu Batuetako ikasleekin. Eskolan bi hizkuntzetan goiz hasiz, etxekoa galtzen hasten dira.

Egunkari irlandarrak dioenez, gaeliko hiztunekin gertatzen denaren tankerakoa da, gaztelania, kasu honetan, hizkuntza gutxiagotua delako. Aldiz, lehen hizkuntza indartsua duten umeak eskola elebi-

dunetan hezita, ez dute beraien hizkuntzan inolako galerarik jasaten.

The Irish Times agerkariak eskolan gertatzen denaz harago begiratzen du eta esaten du, nahiz eta gaeliko hiztunak indartsuen dabilzan guneez aritu hizketan, gizarte erabilerara behera ari dela egiten, eta beraz, gazteentzat gero eta zailagoa dela hizkuntza ondo barneratzea. Etxeko transmisioaren, hiztun komunitatearen eta hezkuntzako egituren harreman-hausketa aipatzen du.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Kapitalismo transnazionalari stop

JOAN DEN ASTEAN politikari, sindikalista, nekazari eta aktibista sozialak bildu ziren Bruselan TTIP merkataritza hitzarmenaren kontra. Horiek guztiak Stop TTIP nazioarteko plataformaren parte dira. Europa osoan jasotako milioi bat sinadura aurkeztu zizkioten Europako Batzordeko presidenteari. Deialdia GUE-NGL ezkerreko berdeen talde konfederalak egin zuen –talde horretan EH Bildu koalizioa dago–. Euskal Herritik joandako politikari, sindikatu, hedabide –ARGIAko kazetari Unai Break zuzenean eman zuen konferentziaren berri internet bidez– eta eragile sozialen ordezkaritza ere Bruselan izan zen.

Hainbat interesengatik erabat oharkabean igaro den jardunaldi horrek TTIP tratatuarekin negoziatzen ari diren kontuen inguruko iluntasuna eta sekretismoa salatu nahi izan du. Bertan parte hartu dutenek eskatu dute tratatuaren zehaztapenak argitara ematea, ezkutukeri horrekin susmoak baitituzte “transnazionaleri boterea eman” nahi zaiela. Kapitalismo transnazionalari alegia. Horretara-

rako, Bruselan dituzten lobbyak erabiltzen ari dira. TTI-Pren kontrako plataformak azaldu duenez, lobby horiek transnazionalen estrategian kolaboratu baino “tratatu bera zuzenean eurak idazten ari dira”. Ondorioz, interes eta errezeta kapitalistak bultzatzen ari dira.

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) joan den astean baieztatu zuen azken 30 urteetan aberats eta pobreen arteko leizea ez dela inoiz une honetan bezain sakona izan herrialde gehienetan. TTIP edo CETA –Kanadarekin egindako beste merkataritza akordio bat– moduko tratatuek ahalbidetzen dute desberdintasun hori jendartean betikotzea. Politikari, sindikatu eta eragile sozialen eginbeharra da herri mugimendua artikulatzea, Euskal Herrian zein European, kapitalismo transnazionalari baino mesede egingo ez dion tratatu hori lurperatzeko.

Juan Mari Arregi

